[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
596. zkia.
XIV. urtea
2006ko abenduaren 22a



# Zer eskatu diozue Olentzerori?

[ GEHIGARRIA ] 2006ARI ERREPASOA • [ KULTURA ] ANJE DUHALDEREN KONTZERTUA

# MERKATU PLAZA

## *Uste duzuna baino gehiago!*



**Amaia** FRUTADENDA



**Arantxa eta Marian**
FRUTADENDA



**TXILARRE** BARAZKIAK
Elikagai biologikoak



**IBARRE** OKINDEGIA



**FRAILE** HARATEGIA



**MARI** HARATEGIA



**Amparo** HARATEGIA



**M. Angeles**
FRUTADENDA



**TXIRIBOGA** TABERNA



**Zabala** FRUTADENDA



**Zabala**
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA

*Gabon zoriontsuak denoi!*


Euskal Herriak autodetermi
elgoibarko ezker abertzalea

# ZELETA BARAZ-

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik

Gabon zoriontsuak!

**Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu**

**ZELETA BASERRIA**
San Migel auzoa ELGOIBAR
Tef.: 609 35 76 19
www.zeletabaserria.com

ARAMBURU
BITXIDENDA

Oparien erosketak egiterakoan kontutan izan,
15 €ko gastuagatik txartel bat emango zaizula,
errege bezperan egingo den zozketarako!!!

**Aurten bitxi-dendan gastatzeko**
**500 €-ko 2 bale**
**zozketatuko ditugu!!**

Azken sarituak



IBARE VELA



PEDRO JAUREGI

**AURTEN ZU IZAN ZAITEZKE!!!**

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 74 25 35



# ZOZOAK BELEARI...



## IMANOL LARRAÑAGA

*"Bi urte daramazue BARRENen idazten eta oraindik ez dozue euskeria aittatu ere egin!?"*. Lagun batek esan zidan aurreko batean, Uxue. Egia aitortu behar badizut, nahiago dut zurekin euskaraz kontu-kantari jardutea, euskararen gaineko gazi-gozoekin hastea baino. Baina tentatu nautenez, Amuriza bertsolariari entzun berri dizkiodan berba batzuk botako ditut airera.

Xabierren esanetan, Euskal Herriak ez du euskalduna izan nahi. Ez daukagu euskaldun izateko benetako borondaterik; ez herritarrek eta ez agintariek. Abertzaleek ere ez. Benetako borondatea izango bagenu, lortuko genuke. Euskarak ez duela balio esaten baduzu txistu egingo dizute, baina ez dago koherentziarik txistu horien eta eguneroko jardunaren artean. Sanz jaunak matematikak ikasteko euskarak ez duela balio esan zuenean, lepora salto egin genion denok, baina gero, adibidez, Osakidetzan lan egiteko ez da euskara jakin behar. Eta ertzain izateko ere ez. Eta lagun artean ere nahiago dugu gaztelaniaz berba egin. Euskal Herri independentea, zaila baina posible ikusten du Amurizak. Euskal Herri euskalduna, berriz, ametsaren aldamenean dago, urruti.

Puntu zaila ipini digu Xabierrek, Uxue. Buruari pare bat buelta emateko modukoa. Bertso-txapela jantzi berri duzunez, zeu izan zaitezke lehena puntuari erantzuten. Atrebitzen al zara?

**[ «Ba al daukagu euskaldun izateko benetako borondaterik?» ]**

IMANOL

**[ «*Maite haut* eta *te quiero* ez dira gauza bera» ]**

UXUE

## UXUE ALBERDI

Euskara salbu ikusi arte ez dut moztuko bizarra...

Eta Amurizak bizar mardul askoa du oraindik: bere hitzak sinesten dituen seinale.

Eta sakon-sakonean ados egon naitekeen arren, kontra egin behar diot, gauza bakar bategatik: etsitzeko forma onena jada etsi dugula sinestea da.

Argi daukat hizkuntzak tresna hutsak direla askorentzat: euskara mailu bat da eta gaztelera beste bat.

Eta esaten dute: ze mailurekin sartuko dut iltzea azkarrago? Eta hautatu egiten dute.

Gazteleraren mailuak bete-betean jotzen du beti iltzea. Euskarazko mailuak, ordea, kilometroak egin behar ditu iltzera iritsi arte... *No entiendo; en cristiano, por favor; si no me hablas en castellano...* Eta jende asko ez dago neke hori hartzeko prest.

Agintariek erraz daukate euskaldun izan nahi dugunon nekea gutxitzeko, baina gehienei bost axola: ez dute ulertzen zergatik bizi nahi dugun euskaraz, gure kapritxoa ulertezina zaie.

Ohartuko bagina hizkuntzak tresna baino askoz gehiago direla, mundua ikusteko betaurrekoak direla, *maite haut* eta *te quiero* ez direla gauza bera...

Orduan ez genituzke iltzeak horman buru-kolpeka sartu beharko.

> MINTZAIRA ARTE ANONIMO KOLEKTIBO ETA INKONTZIENTEA DA, MILAKA BELAUNALDIREN SORMENAK IZAN DUEN EMAITZA
>
> Edward Sapir

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## I. San Silvestre lasterketa

Urgazi Triatloi Taldea berpiztu egin da aurten eta taldea osatzearekin batera kirol jarduerak sustatzen hasi nahi du. Hori dela-eta, aurten eta lehenengoz gure herrian, San Silvestre lasterketa antolatu du abenduaren 31rako. Goizean jende askok egiten du Aizkorrira eta horregatik arratsalderako antolatu dugu lasterketa. Euskal Herriko eta kanpoko herri askotan izaten da egun horretan San Silvestre lasterketa. Gurean ere tradizio berri bat sortu nahi dugu lasterketa herrikoi honekin.

Parte hartzen dutenek ez dute ezer ordainduko eta dortsalik eta saririk ere ez da egongo. Izan ere, horiek antolatzen hasi ginenean ikusi genuen dortsalek eta sariek jendea lehiara bultzatuko luketela eta ez dela hori gure asmoa. 5 km inguruko ibilbide erraz eta ezagunean ahalik eta elgoibartar gehien biltzea da gure nahia, lehiarako badirelako beste hamaika lasterketa urte osoan. Adin orotako jendeak parte hartzea nahi dugu, baina kirol ekintza bat izanik, parte-hartzaileei arreta eskatu nahi diegu, gutxieneko prestakuntza fisikoa izan dezaten. Lasterketa Plaza Handian hasiko da 17:00etan, eta honako ibilbide hau izango du: Plaza Handia, Santa Ana kalea Tren Geltokiaren kalea, Kiroldegia, IMHtik institutura jaitsi, San Lorentzoko bide "zaharretik" Ibarreneako baserrira, Ezkerrera hartu eta San Lorentzoko bide "berritik" errepideko bidegurutzeraino, Albitxuriko aldapatik enpresagunera, Melitongo zubira jaitsi, Artetxe kalea, Madalako parkea, San Frantzisko kalea, San Bartolome kalea, Plaza Handia. Herritar orori dei egin nahi diegu parte har dezaten, urteko azken eguna kirola eginez agurtzera.

**Urgazi Triatloi Taldea**

## Pirritx eta Porrotx

Urtero bezala Gabonekin batera Pirritx eta Porrotx pailazoak ere Elgoibarrera iritsi dira. Pozez hartu nuen berria, kalean iragarkia irakurri nuenean. Elgoibarko bi liburu-denda ezagunetan jarriko zituzten txartelak salgai, bi egunetan. Badaezpada denda horietako batera jo nuen sarrerak salgai noiz jarriko ziren zehatz jakiteko. Iritsi da eguna, joan naiz sarrera bila, eta ez dago txartelik. Antza, ezarritako eguna baino lehen saldu zituzten. Zergatik? Bada jende askok deitu eta enkargatu dituelako sarrerak. Baina ezin liteke! Udalak bi egun ezarri zituen sarrerak saltzeko eta nola liteke egun bakarrean saltzea? Liburu-denda bietan eta Udalean hainbat lagunek eskatu dugu gertaturikoa azaltzeko. Kultura Sailetik esan digute presioa hain izan dela handia ze, saltzera ia behartuta sentitu dira saltzaileak. Mozolo aurpegia geratu zitzaidan. Izan ere, ezarritako egunak errespetatuta sarrera bila agindutako egunean joateagatik bat ere gabe geratu naiz. Zorionez, Euskal Herrian kultur eta aisialdi ekintzek gero eta jende gehiago biltzen dute eta azken urteotan sarri gertatzen zaigu ekitaldi batzuetako sarrerak erosi ahal izateko lehen egunean, lehen orduan, joan behar izatea; Behobia-Donostia lasterketan esaterako, makina bat kontzertutan, etab. Baina Elgoibarren batzuk besteak baino azkarragoak dira, argiagoak, eta gainera Udalak baimena ematen du berak emandako hitza jan eta sarrerak ezarritako egunetatik kanpo saltzeko. Udalak beste zerbait ere esan zigun: "BARREN astekarian gaur konponduko dugu arazoa". Kultura Saileko buruari esango nioke, gurean bederen, barkamena eskatzea ez dela gauzak konpontzea. Izan ere, beste asko bezala, nire arazoa da lehengusinei zin egin niela urtero bezala pailazoen ikuskizunera joango ginela. Oraindik ez da emanaldia izan, eta arren eskatu nahi diot bere hitza jan zuen Udaleko arduradunari atzera egin dezala, eta errespetuz joka dezala elgoibartar guztiokin. Gehiegi dela? Ez noski. Udalak hitza eman eta ondoren jatea, hori bai, hori gehiegi da. Bestela, zein da irtenbidea? Lehengusinari Udalak niri esandakoa esatea? Alegia, barkamena eskatzea? Ez noski, bidegabeki sarrerarik gabe geratu garenok bestelako konponbideren bat nahi dugu. Emanaldia ikusi nahi dugu, eta batez ere Udalak errespetuz eta seriotasunez har gaitzala.

**A. L.**

E-POSTA
**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]
barren
Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea:
ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga PUBLIZITATEA Eider Iriondo, Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.570 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## TXALOAK



• Zorionak Sabin Oregiri: "Bi metroko jaiotza bikaina egin du aurten Sabin Oregik. Harriak, hondarra eta material guztia berak bildu eta benetako artista dela erakutsi du berriz ere. Bere etxeko portalean jarri du jaiotza, Gabriel Krutzelaegi kalean. Zorionak".

• Txalo bero bat Haizea Emakume Taldeari: "Eskerrak eman nahi dizkiogu Haizea Emakume Taldeari urtean zehar antolatzen dituen ekitaldi guztiengatik. Bideo forum-ak, ikastaroak, irteerak... Azkenengoz ere autobus osoa bete genuen Bilboko Arriaga Antzokira joateko. Segi horrela, fin-fin, ekitaldiak antolatzen".



## KEXAK

• Gabonetako oreinak botata esnatu ziren astelehen goizean: "Jendeak ez du ezer errespetatzen. Ulertzekoa da batzuei argi horiek ez gustatzea, baina horrek ez die nahi dutena egiteko eskubidea ematen. Gustukoak ala ez, argi horiek hor daude eta Udalak inbertsio handia egin du argi horiek hor egon daitezen. Beraz, errespeta dezagun besteek egiten duten lana, gure gustukoa ez izan arren."



• Eguerdietan ez da udaltzainik egoten Txankakuako zubian: "Goizean eta eguerdietan trafiko handia pilatzen da Elgoibarko bidegurutze nagusietan. Madalako arazoak semaforoekin konpondu zituzten, baina Sigma eta Txankakuan udaltzainak behar izaten dira. Goizetan bi lekuetan egoten da udaltzaina, baina eguerdietan Sigman bakarrik. Jende gehiena ordu beretsuan ateratzen da lanetik eta auto mordoa pilatzen da Txankakua inguruan. Ez dut ulertzen zergatik goizean udaltzaina egoten den eta eguerdian ez".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
943 74 41 12

Elgoibarko Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia

DANOBAT
kutxa
kondia
GOITI GRUPO DANOBAT

# [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



## IKER EPELDE

LETE JANTZI DENDAKOA

**Gabonetarako opari bat?**
Jertse polit bat.

**Gizonezkoen arropan zer eramango da neguan?**
Marradun eta erronbozko jertseak, fantasia ikutu batekin. Jendeak arropa orijinalak eskatzen ditu, betiko moldeetatik desberdintzen direnak.

**Hotzerako jaka ala berokia?**
Jaka.

**Disenatzaile edo arropa etxe bat?**
Jende gaztearengan G Star marka; helduagoetan, berriz, Gunt.

**Momentuko modak erreferentziatzat duen estiloa?**
Urban estiloa. Egunero erabiltzeko arropak, arinak eta jantzigarriak.

**Zer nolako ehunak nagusitzen dira?**
Gehienbat, bakeroa, kotoia eta lana. Bestalde, larrua saltzen jarraitzen den arren, beste urteetan baino geratuxeago dago.

**Alkandora ala nikia?**
Gazteek, nikia nahiago dute. Helduek, aldiz, alkandora.

**Osagarri ezinbesteko bat?**
Gerrikoa eta oinetakoak.



# URRUZUNOREN *luma*

## *"El Raval"*

Gaudi-ren artelana, diseinuaren hiria, artearen zentrua... eta guzti honen erdian, baina erdiaren erdian..."El Raval" auzoa. Hiriak errepresentatzen duen guztiaren aurkakoa. Hain kuriosoa! Nire begiei ez die astirik ematen ibiltzen noan heinean ikusten eta sentitzen dudan guztia bereganatzeko; bata eta etxeko zapatiletan amama ximur bat xentimo justuekin erosketatan; kolore eta zapore guztietako jendea atzera eta aurrera; 1.001 usain, 1.001 gauak beste lokutorio eta pakistanien mugikor dendak; margo kilo batek hornituriko "puta merkeak"... merkealdietako printzesak; sekula irabazle aterako ez diren jokuan jo ta su dabiltzan yonki koadrila...

Zoaz eta auzoak bildu zaitzala. Gonbidatzen zaitut... eta kontatuko didazu.

*Ainara Sedano*

## komikia

*Hil da gero...*




Kokoe 082

www.residencialgeminis.com

elgoibar

48 etxebitza, 2 eta 3 gelakoak

117 garaje eta 76 trasteleku

Grupo GSI
Residencial Géminis



259.000 €-tik
garaje eta trasteleku barne
(43.093.974 ptas.)

Tfno.: 943 74 80 92

infolur
agentes inmobiliarios

Grupo GSI
Espacios de Bienestar

Argibideak: INFOLUR C/ Antonio Arrillaga, 1 behea. 20870 Elgoibar. info@infolur.net - www.infolur.net



Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna






DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa Enparantza, 2 – 943742731
20870 ELGOIBAR • elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

EL GAUTXO

Gabonetarako enkarguak hartuko dira:

- Erregetako roskoia
- Mota guztietako tartak
- Tarta gozo eta gaziak



bokatak
entsaladak
pizzak
gozoak

Gabon zoriontsuak!

Errosario, 31 • ELGOIBAR • Tel.: 943 53 17 71

BASURCO
Inmobiliaria API-368

ZURICH
ASEGURUAK






Deba kalea, 2 behea
Tel.: 943 748 013 · Faxa: 943 748 135

Gabon jai zoriontsuak eta urte berri on

## [AKORDATZEN NAIZ]



### MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

# «Gabonak»

Gabonak beti familixa giruan pasatzen genittun. Gaur egun ohittura hori galtzen hasi da, askok oporretara juteko aprobetxatzen dittue Gabonak. Guk ondiokan aguantatzen dogu. Familixa gutxi gera eta danok batera pasatzen doguz Gabonak. Gabon gabian afari bat egitten dogu, baina ez da lehen bezela. Oin urtian zihar zelebrazio mordua egoten dira, afari eta bazkari asko egitten dira familixan eta Gabonak ez dira hain inportantiak, azkenian bat gehixago izaten da. Lehen konpota usaina eta amama karakolak ipintzen, danok sukaldian bueltaka... beste giro bat zan. Erregalorik ez zan egitten Gabonetan. Errege egunian zeozer, detaileren bat, baina ezer gutxi.

Elgoibarrera etorri ginan lehenengo urtian, gure etxiak mirador txiki bat zakan eta hantxe ipini naban zapatia aulki gaiñian. Goizian juan nintzanian hiru kaja nakazen neretzako, hiru! Zelako inpresiua egin zidan! Ez zan gauza haundixa izango, baina hiru kaja edukitzia sekulakua zan. Urte haura oso politta izan zan. Gaur egungo umiek penia ematen didate. Nik eduki naban inpresio hori sekula ez dabe edukiko. Danetik dakate, nahi baino leheno ematen jakue dana. Nik beti la "Marikita Perez" eskatzen naban, ondiokan existitzen da. Haren erropak asko gustatzen jatazen, sonbrerua, abrigua, botinak... oso karua zan. Sekula ez jatan etortzen. Azkenian eskatziari laga nion. Nere koinatari ere gustatzen jakon eta oin dala 10 urte edo erosi ziuen alabek. Harek lortu du, baina nik ondiokan ez.



## [GURE BERBAK]

### Ondoriozko esaldixak

Bi parteko esaldixak dira ondoriozkuak: lehendabizikuak egoera bat azaltzen dau (HAIN, HAINBESTE eta era horretako partikulekin), eta bigarrenian aurrekuaren ondorixo bat jasotzen da. Euskaltzaindiaren gramatikan (*Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* (I-VI)) jasotzen dira ondoriozko perpausen aukera guztixak, aditz menpekua dauken esaldixak ere; era honetakuak: *Hain da mutil inozoa, non denek jotzen baitiote adarra.*

Elgoibarren ez darabiguz horrela esaldi hauek, baizik aditzak menderagailurik ez daukala. Ekarri daiguzen adibide batzuk (azpimarratuta jarri dot ondoriua dan zatixa, bai eta *hain-hainbeste* ere):

- *Hamen Elgoibarren dana igual egitten dogu. Hamen ere, pasatzen zera Urkaregiñ, Gipuzkua-Bizkaia mugia? Hor ere kanbixau eitten da: hain da gauza rarua.*
- *Oiñ hainbeste entzuten diogu hóneri, politikueri ere, guk len entzuten ez genduzen izenak, oiñ ikixi egitten juagu eta enteniu eitten juagu.*
- *Beste batzuk soldautzan hainbeste denporan egonda, esaten zeben golferixara jotzen zauala jendiak.*
- *Baiña len pixkat alpertuta baldin badago, ba, han (soldautzan) hainbeste denporan, lanerako goguak alde eiñ, edo endredau.*

*Jesus Mari Makazaga*



50 URTE Jakin GURE KULTURAREN ALDIZKARIA

Jakin
haizea dakiten orriak

Harpidetu zaitez eta oparia jasoko duzu
deitu: 943 218092
Idatzi: jakin@jakingunea.com
Ikusi: www.jakingunea.com
Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro
Oparia: 50 urteotako 202 zenbakiak DVD batean

## [ PROTAGONISTA ]



### FernandoBert

Espainiako Auzitegi Gorenak eskatutako euroagindua onartu du Tolousseko epaitegiak eta Fernando Bert preso elgoibartarra Madrilera eraman zuten abenduaren 14an. Frantzian zeukan zigorra ordaindu ondoren, Madrilgo Soto del Real kartzelan dago orain elgoibartarra, ETAko kide izatea leporatzen diotelarik. Espainiako legediaren arabera, beste lau urtez egon daiteke Bert preso, epaiketaren zain. Elgoibarko Askatasunatik Espainiako Gobernuaren politika salatu nahi dute, beraien esanetan, "mendekua eta txantaia" erabiltzen dutelako.

## [ NOTIZIA ]

# Ordu eta erdira mugatuko du Udalak Plaza Txikian aparkatzeko denbora

Elgoibarko alde zaharra eta erdigunea oinezkoentzako prestatzeko asmoa erakutsi du Udalak. Ordenantza berri honen arabera, auto partikularrak ezin izango dira San Frantzisko, San Bartolome eta Errosario kaleetan ibili. Karga eta deskargarako denbora bestalde, mugatu egingo da: gaur egun goizeko 6:00etatik 12:00etara eta arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara egin daiteke, baina lege berria indarrean jartzen denean, goizeko 7:00etatik 11:00etara bakarrik egin ahal izango da.

**Plaza Txikia**

Honekin batera, doako TAO jarriko dute Plaza Txikian eta BBVA pareko aparkalekuan. Ez da ordaindu beharrik izango, baina autoa ordu eta erdiz bakarrik laga ahal izango da bertan. Isunak 10 eurotik hasiko dira. Ingurune honetako bizilagunentzako, ezinduentzako edota beste kasu berezi batzuentzako egoitzadun txartelak banatuko ditu Udalak.



## [ ZENBAKIA ]

Udalak 372.000 euro inbertituko ditu ludoteka eta gaztelekua egokitzeko obretan. Gabriel Krutzelaegi kaleko bi lokaletan kokatuko dira. Aikia eraikuntza enpresa izango da lan honen arduraduna eta 4 hilabeteko epea izango du lanak amaitzeko.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Elgoibar Ikastolako ikasleek elkartasuna landu dute aurtengo Gabonetan. Olentzero herriko ume guztien etxera iritsi dadin, 5 urteko ikasle bakoitzak jostailu bat eman dio Gurutze Gorriari, eta hauek herriko ume behartsuen artean banatuko dituzte. Olentzerok opariz beteta edukiko du zakua dagoeneko, eta Elgoibarrera iristear egongo da. Ikastolaren ekimen honekin, seguru herriko ume guztiek jasoko dutela Olentzeroren oparia. Hala ere, gaiztoak izan direnentzat, ikatza ekarriko du. Formala izan al zara

# Irati eta Miren Arzuaga ahizpek irabazi



Jaiotza Lehiaketaren XX. edizioa jokatu zen pasa den domekan eta Irati eta Miren Arzuagak eginiko jaiotza izan zen irabazlea. Bi ahizpa hauek igeltso bendak erabili zituzten jaiotza egiteko. Uretan busti ondoren, igeltsoa erabat gogortzen da, baina moldatzeko aukera eskaintzen du lehortu aurretik. Pisu handia zeukan jaiotza honek; lortu zuten garaikurrak bezalakoxea. Bigarren saria Mikel Arriola, Koldo Errasti, Jon Etxaniz, Igor Loidi eta Miguel Montesek osatutako taldeak eskuratu zuen eta Olaia Irigoien eta Haizea Beristainentzat izan zen hirugarrena.

**46 talde**

Elizako arkupeak kolore eta material desberdinez eginiko jaiotzekin bete ziren joan zen domeka goizean. Igeltsoa, ogia, buztina, arkatzak, papera... mota guztietako jaiotzak egin zituzten partehartzaileek. Inoiz baino jaiotza gehiago aurkeztu ziren lehiaketara. Guztira 46 taldek eta 180 ume baino gehiagok hartu dute parte aurtengo jaiotza lehiaketan. Argi eta garbi ikusi zen haurren irudimenak ez daukala mugarik. Jaiotza hauek guztiak Errosario kaleko 7. zenbakian dagoen lokalean ikusi daitezke.



Goizeko 8:30etik aurrera, baserriko produktu desberdinak dastatzeko aukera izango da Gabon Zahar Ferian. Urtero bezala, barazki, fruitu, opil, gazta eta artisau postuak izango dira Leku Ederren eta Plaza Handian. Animaliak ere ez dira faltako: txerriak, hegaztiak, behiak... denetarik egongo da. Goiko Errota Elkarteak antolatuta, gazta lehiaketaren 25. edizioa izango da, eta barazki eta fruitu postu ikusgarrienak ere, saria jasoko dute. Bertso eta trikiti doinuek jantziko dituzte herriko kaleak, eta feria egunean ohikoa den talo eta txorizoa jateko aukera ere egongo da.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Elgoibarko Emakumeen Ahotsak

Elgoibarko Ahotsak taldeak sinadura bilketa kanpaina jarri du martxan Txankakua Merkatari Elkartearen laguntzaz. Txankakuako establezimenduetan Ahotsak taldearen manifestua egongo da eta nahi duenak sinatzeko aukera izango du. Gabon Zahar Feria egunean, Plaza Handian sinadurak biltzeko mahaia jarriko dute 12:00etatik 14:00etara.

### Ikastolako txosnan txahala

Gabon Zahar Feria Egunean, datorren abenduaren 30ean, txahala erreko dute Elgoibar Ikastolako txosnan. Egun osoan zehar erreko dute txahala eta iluntzeko 19:00etan hasiko dira pintxoak banatzen. Txahala herriko Eusko Label etiketa duten harategien emaria da: Armueta, Ziarda, Barrutia eta Benito.



### Merkatu Plazako zozketa

Merkatu Plazako dendariek 60 euroko hiru txeke zozketatu dituzte. Pilar Txurruka, Angelines Lucas eta Begoña de La Fuente izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute eta Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.



2006. urtea azken egunetan sartu da.

# Zer izan da 2006ak eman dizun onena?

**ARANTZA URIARTE**
Administraria
49 urte



“Ez daukat ezer berezirik aipatzeko. Ez da urte txarra izan, baina oso ona ere ez. Alabak datorren urtean ezkontzen dela esan digu. Ea 2007a hobea den.”

**YOLANDA ORDOÑEZ**
Auxiliarra
29 urte



“Elgoibarrera etorri naiz nire mutilarekin bizitzera. Donostia bezalako hiri polit bat utzi dut, hona etortzeko. Aldaketa ona izan da, dudarik gabe. Maitasuna izango da.”

**PILAR RUFO**
Geriatriako laguntzailea
40 urte



“Nire familiakoekin oso ondo konpondu naizela aipatuko nuke, senarra eta alabekin, batez ere. Hala ere, datorren urtea hobea izan dadila espero dut.”

**PILAR GUERRA**
Metalurgiako langilea
45 urte



“Urtea amaitzear dagoela da niretzat 2006ko onena. Urte txarra izan da, benetan. Egun gutxi geratzen dira eta lehenbailehen pasatzea nahi dut.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Gustatzen al zaizkizu Gabonetako argiak?

**BAI %54**

“Horixe baietz! A zelako distira daukaten Elgoibarko kaleek! Gabon itxura bete-betekoa hartu du gure herriak. Norbaitek uste al du, ba, gure herriak ez duela horrenbeste merezi?”

**EZ %46**

“Ez. Gabonak datozela gogoratzeko, irudi edo argi batzuk jarri daitezke, baina gaur egunekoa gehiegizkoa da, gizarte kontsumista baten ispilua besterik ez da.”

Datorren asterako.... Iritsi dira aurtengo Gabonak.
**Modu berezian ospatuko al dituzu Gabonak?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 **euro** + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**.
Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

*Hasi baino ez gara egin,*
*eta ez dakigu bideak nora eramango gaituen.*
*Baina aurrera egiteko deseatzen gaude.*
*Zuekin batera.*




ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUKO
Bazkide egin zaitez!!
ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA
KIROL TXARTELA
2007
Tef.: 943 74 44 15


TEMPUR
Dunlopillo
laxy
Mediterráneo
sonpura
MASH
90 zm-ko oherako nordikoak
29€* BAKARRIK
Zure nordikoa ez da izango amets bat!!
Edredón nórdico
Kol
Kalitate goreneko edredoi nordikoa eskeintzen dizugu!
Pisua: 250 gr. edo 100 gr. • Ehuna: %100 kotoia
%20ko beherapena ehunetan!
(* 90 zm-ko oherako 250 gramo)
Uki leuna
Airearen zirkulazioa
Mikroklima bero erregulatua
40º-tan garbigarria
Garbiketa lehorrean
Hipoalergenikoa
Neurri guztiak ditugu!
www.textillagunak.com
LAGUNAK
San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

# [06]

urteari errepasoa

# [06] urtarrila



**Urtarrilak 12**
Elgoibarko Agenda 21 herri partaidetza bildu zen, datozen urteetako herri ekintzak zehazteko; ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren garapenerako ondorioak aintzat hartuz.



**Urtarrilak 13**
Basarte eta Santa Klara auzoan eraiki ziren etxe berriekin batera, 2 kale berri estreinatu ziren. Basarte auzotik, kiroldegira doan kalea, San Roke kalearen luzapena, eta bestetik, Aizkorri kalea.




**Urtarrilak 22**
Urtero legez, Mugerza Krosa jokatu zen Mintxetan eta Charles Kamathi keniarrak sprintean irabazi zion Joseph tanzaniarrari.



**Urtarrilak 27**
Elgoibarko Udalak bost platanondo kendu behar izan zituen Plaza Txikitik, lurrazpiko kontenedoreak jartzeko.


Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570
GRUPO

## [ PROTAGONISTAK ]



**Igor Castañares**
Zaldun elgoibartarrak irabazi zuen Donostiako Antiguo auzoko jaien baitan, atolatutako zaldi lasterketa, bere zaldi "Hodeiren" gainean. Anai gazteak, berriz, Iosuk, hirugarren postua eskuratu zuen, "Bizkor" zaldiarekin.

**Ainara Burgaña**
Gazteria Sailak antolatutako logotipo lehiaketa irabazi zuen Ainara Burgaña, diseinalatzaile grafiko elgoibartarrak, "Rai" izeneko bere lan orijinalarekin. Estreinako aldiz hartzen zuen parte horrelako lehiaketa batean eta irabazi egin zuen.





**Jokin Urain**
Urtarrilaren 27an, Jokin Urain, mendaroko preso politikoa omendu zuten. 20 urte daramatza espetxean bere zigorraren 3/4ak beteak ditu eta legearen arabera, kalean egon beharko luke.

**Eulogio Estarta**
Eulogio Estarta Elgoibarko seme kuttun izendatu zutenetik, 50 urte bete dira aurten eta Filatelia Elkarteak berari eskaini zion aurtengo zigilu erakusketa. Eulogio, 12 urterekin hasi zen lanean San Pedroko fabrikan eta 1920an Estarta eta Ecenarro enpresak sortu zituen. 1946an, AFM sortu




ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83






Malape taberna
Orain astegunetan
Zorionak eta Urte Berri On!
San Frantzisko, 60
tel.943 74 19 43

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

# [06] otsaila



**Otsailak 3**
Udaleko Gobernu Batzordeak, gainontzeko alderdi politikoen babesa jaso zuen, eta denek aldeko botoa eman zioten Elgoibarko jasangarritasunerako planari. Proiektu honen helburua, herritarren bizi kalitatea hobetzea da.



**Otsailak 11**
Madalako errotondan istripu bat gertatu zen. Hilabeteko epean bi istripu izan ziren errotonda honetan. Ordu puntuetan trafiko handia pilatzen da puntu arriskutsu honetan, arazo ugari sortuz.



**Otsailak 17**
Ubitarte Buruko Babes Ofizialeko Etxeak 2008. urteko 4. hiru hilabeterako amaituko direla jakinarazi zuten Etxebidetik; hasieran aurreikusitako epea atzeratuz.



**Otsailak 24**
Gipuzkoako Foru aldundiko Errepideen Departamenduak San Migel auzorako errepidea berritzeko proiektua atera zuen lehiaketara eta 200.000 euroko aurrekontua aurreikusi zuen.











ainhoa
fisioterapia
Gabon zoriontsuak!
• Urtarriletik aurrera goiz eta arratsaldez.
• Zentrora heltzeko eragozpen fisikoa egongo balitz, etxez-etxeko zerbitzua eskaintzen da.
Tel.: 943 53 19 53
Mugikorra: 669 565 745
Jausoro, 6 behea
ELGOIBAR


LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA
TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54


Burtsa informatikoa
API
Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo
Jai zoriontsuak denoi
Errosario 21, behea • ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67

# EIZAGUIRRE
OKINDEGIA

**LANTEGI PROPIOA**

Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...

"Betiko ogia"

*Gabon zoriontsuak guztioi!*



San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88

# ETXEKIT
*Luis F. Beristain*



SUKALDERAKO ALTZARIAK
xey®
banatzaile ofizila

*Urte berri on!*

12 urteko bermea

Arrillaga z/g - Elgoibar
Tel. 943 74 43 47






Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak

PLATER KONBINATUetan aukera zabala

Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06/943 74 38 11

## [ PROTAGONISTAK ]



### Luis Cerron

Herri Eskola eta BH Institutoko Guraso Elkarteak, Gurasoen Formaziorako VIII. jardunaldiak antolatu zituzten eta hitzaldi hauetako hizlaria Luis Cerron izan zen. Lau hitzaldi eskaini zituen, gurasoen intereserako gai desberdinak jorratuz.

### Angel Mari Lopez

Kadete mailako Gipuzkoako Kros Txapelketako irabazle izan zen gazte elgoibartarra. Lasterketa otsailaren 5ean jokatu zen Hernanin.






### David Mekolalde

GARE Irratizaleen taldeko kide elgoibartarrak, Espainiako Irratizaleen txapelketan garaipena eskuratu zuen, 12 probetatik lau irabazi ondoren. Txapelketara espainiako dozena bat irratizale ekarte aurkeztu ziren.

### Jesus Larrañaga

Otsailaren 15ean hil zen, 74 urte zituela. Sortzez soraluzetarra, 1954. urte inguruan etorri zen Elgoibarrera. Euskaltzale porrokatua izan zen, 50. hamarkadan, euskalduntze alfabetatzean, gazteei euskara irakasten eta Ongarriren eta dantza taldearen sorreran ibili zen.



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

AZPELETA
elektrizitatea
Jai Zoriontsuak!
San Frantzisko, 51 behea. **Tel: 943 74 12 38**

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa
• DISEINU GRAFIKOA
• OFFSET LITOGRAFIA
• FOTOKONPOSIZIOA
• PUBLIZITATE DISEINUA
• ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK
• INPRESIO DIGITALA
Gabon zoriontsuak!
Sigma industrialdea.
Xixilion 2 - 2. solairua - 7 lokala - **ELGOIBAR**
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
E-posta: debape@telefonica.net




**Martxoak 8**
Nazioarteko emakumearen egunean, bi sexuen arteko berdintasuna aldarrikatzeko, hainbat ekitaldi antolatu zituzten, bai Gazte Asanbladak bai, Haizea Emakume Taldeak.




**Martxoak 21**
Lan munduan euskararen erabilera sustatzeko plana aurkeztu zuten Debegesak Eibarren duen egoitzan, Elgoibar, Mendaro, Deba, Mutriku, Eibar eta Soraluzeko Udalek.




**Martxoak 22**
ETAk su-etena iragarri zuen eta albiste honen aurrean, herritarren erreakzioak bildu genituen. Oro har, herritarrak pozik eta itxaropentsu azaldu ziren.



**Martxoak 29**
Otegik Madrileko Auzitegi Nazionalean deklaratu zuen. Marlasca epaileak 250.000 euroko bermea jarri zion Batasunako bozeramaileari kartzelatik ateratzeko. Hilaren 9ko greba eta mobilizazio egunerako deialdia egitea leporatu zion epaileak.

**Gabiola GESTORIA**
- Ibilgailuak
- Garraioak
- Gai orokorrak

AXA ASEGURUAK
San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - ELGOIBAR

**Gorbea** TABERNA
*Jai zoriontsuak!*
Santa Ana, 10 • Tel: 943 74 05 80

**LAGUN ARO**
ASEGURUAK
Euskadiko Kutxa Taldekoa

*Gabon zoriontsuak eta urte berri on!*

Santa Ana, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel. 943 74 73 70
Fax 943 74 10 51
ygarcia@segurosLagunaro.com

## [ PROTAGONISTAK ]



### Mikel Gorriti

19 urteko elgoibartarrak Baqueira-Beret eski estazioan jokatu zen Ballantines Snowboard Cross txapelketan bostgarren postua eskuratu zuen.

### Ana Lidia Gonzalez

Elgoibartarrak Nafarroako Unibertsitateak eskaintzen duen Arkitektura Ikasketa Amaierako Saria irabazi zuen, 2004-2005 ikasturteko expediente akademiko eta proiektu hoberenetako bat edukitzeagatik.





### Iñaki Konde

Triatletak HegoAfrikako Ironmanean parte hartu zuen eta ibilbidea bukatzea lortu zuen 10 ordu eta 42 minutu eginaz

### Uxue Alberdi

Elgoibartar idazle eta kazetariak, Neguko Bertso Paper Lehiaketa irabazi zuen. 10 bertso idatzi zituen, gizon baten eta puzteko panpin baten arteko maitasuna gaitzat hartuz.



SKANDALO
OIHALAK
MERTZERIA
NEURRIRA EGINDAKO JANTZIAK
Gabon jai zoriontsuak!
San Bartolome, 19 • Tel: 943 74 35 95

Ekor
Aholkularitza Juridikoa & Ekonomikoa
Mendarozabal Industrialdea z/g
Tarteko solairua 2B
Tel.: 943 75 52 24 Faxa: 943 75 52 32
20850 Mendaro
Zorionak eta Urte Berri On!
Abokatu zerbitzuak
Kontabilitatea
Nominak
Aseguru Sozialak

HAIR'S
ILEAPAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea • Tel.: 617 988 130
Asteartetan jubilatuen eguna
Urte berri on!
Ostiraletan egun guztian zehar edukiko dugu irekita (9:00-19:00)



**Apirilak 3**
Elgoibarko Izarrak, Bazkideen Batzar Orokorra egin zuen. Aurtengo erronka moduan, autofinantziazioa aipatu zuten. 2006ko aurrekontua 466.000 eurokoa da.



**Apirilak 7**
Madalako gune erresidentzial berrian, Pedro Muguruzako etorbidean, Babes Ofizialeko 16 etxebizitza eraikitzeko proiektua onartu zuen Foru Aldundiak.



**Apirilak 15**
Gipuzkoako Kutxako 40 bezero inguruan dirua lapurtu zien, euren kreditu txartelak kopiatu ostean. Zorionez, banketxeko arduradunak segituan konturatu ziren, eta lapurturiko dirua kaltetuei itzuli zitzaien.




**Apirilak 28**
Elgoibar Bizirik Herri Plataformak azoka txikiko 10 saltzaileren aurka jarritako salaketa atzera botatzeko eskatu zion Udalari. Plataformak merkatarien artean eginiko inkestako emaitzen arabera, merkatariek azoka herri erdigunean kokatzea nahi zuten.

Idama
EDERGINTZA
ILEAPAINDEGI MISTOA MAKILAJEAK
EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK
SOLARIUM-a
Urte Berri zoriontsua denoi!
Antonio Arrillaga, 6-8 943 74 40 26 ELGOIBAR

ITURRI
Taberna
Zorionak eta Urte berri on!

Foruen plaza, 5
TEL: 943 74 28 97


Iriondo
taberna
Mila esker elgoibartar guztioi eta eguberri on!


Zure inbertsioak
bideratzen ditugu
ZURE ERAGINKORTASUNERAKO ZUBIA
MAPFRE
INVERSIÓN
Urte berri on!
San Frantzisko, 40 • Tel.: 943 74 05 82 / 943 74 14 04
Faxa: 943 74 17 07 • patxiza@mapfre.com

Gabi jatettea



# GABONETAKO MENU BEREZIA

Zatoz!!

## Sarrerakoak

Foie-terrina "cous-cous"-arekin eta magurdi-sorbetea

Errioxar erara prestatutako patatak edalontzian

---

Burruntzia: itsas sapoa, otarrainxkak eta txingarra barazkiz egindako olio ozpinarekin

*edo*

Bakailaoa pil-pilean tomate konfituarekin

---

Solomoa onddoekin eginiko saltsan

*edo*

Erbi gisatua priorato erara

---

Gabonetako konpota turroi biscuit-arekin

*edo*

Txokolatezko "coulan"-a esne-gozo izozkiarekin

*Gabon zoriontsuak eta urte berri on!*

Nafarroa enparantza • Tel.: 943 74 12 30

## [ PROTAGONISTAK ]



### Jose Luis Insausti

Hiru urtez C.D. Elgoibar Taldeko presidente eta aurrez, beste bi urte Zuzendaritza Taldean egon ondoren, bere kargua utzi egingo zuela adierazi zuen.

### Alberto Garate

IMHko Ikasle ohi aipagarrienaren aurtengo saria jaso zuen, Goi Alde High Speed izeneko enpresa berritzaileko gerente eta 32 urteko elgoibartar honek.





### Agustina Iriondo

Emakume mendaroarrak 101 urte bete zituen pasa den apirilaren 27an. Sortzez, Mendaroko Mantarre baserrikoa, izan arren, 20 urterekin Elgoibarrera etorri zen bizitzera. Agustina 2006ko abenduaren 18an hil zen.

### Igor Horrillo

Botikari mendaroarrak Gipuzkoako Botikarien Eskolak antolatzen duen Feuse Saria irabazi zuen. "Depresio nagusia" izeneko lana aurkeztu zuen lehiaketara.



OLASO
TABERNA-JATETXEA
Gosariak - Menuak...
Gabon jai zoriontsuak!
Olaso Industrialdea, 15 Tel. 943 74 31 85 - 636 01 57 07

Maria Urizar
ILEAPAINDEGI MISTOA eta SOLARIUMA
Jai Zoriontsuak pasa itzazue!
Errosario, 9-1 ezk. 943 74 44 89

INMUEBLE AGENTZIA
ARBELOA
INMOBILIARIA
Jai zoriontsuak!
arbeloa@telefonica.net
San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27

amalurra
fisioterapia zentrua
amaia etxebarria • estitxu uribeetxebarria
San Frantzisko Kalea, 58 behea
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 53 14 63



**Maiatzak 5**
Sigmako aparkalekua eta Kultur Etxe atzeko parkea inauguratu zituzten, Marivi Agirregomezkorta Elgoibarko alkateak eta Migel Anjel Mujika, Hirigintza Saileko arduradunak.




**Maiatzak 6**
18/98 epaiketa salatzeko herritar ugari bildu ziren. Helburuak, epaiketa artxibatzeko eskatzea eta epaituei elkartasuna adieraztea, tartean, Juan Mari Mendizabal elgoibartarrari.



**Maiatzak 21**
Elgoibarko Mendi Itzulian inoiz baino jende gehiagok hartu zuen parte. Guztira 252 lagunek inguratu zuten Elgoibar mendiz-mendi.



**Maiatzak 26**
2012. urterako Deba ibaia garbi egongo dela adierazi zuten Eusko Jaurlaritzatik. Guztira, 102 milioi euro inguru inbertituko ditu Eusko Jaurlaritzak Deba ibaiko garbitasuna berreskuratzeko.

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11
IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA
Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!
Zorionak eta urte berri on!

BIKAIN
AHOLKULARITZA
• Zerga-aholkularitza
• Lan-aholkularitza
• Kontabilitate aholkularitza
Tel./Faxa: 943 74 45 57
e-posta: bikain@fonocom.es
Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR

OLATZ, S.L.
SUKALDE eta KOMUNERAKO ALTZARIAK
Pedro M. Urruzuno, 8 • Tel: 943 74 38 44

## [ PROTAGONISTAK ]



**Arantza Ferreiro**
Haritz Dantzari Taldeko partaide elgoibartarrak Legazpin ospatu zen Euskadiko Neskatxena Txapelketako txapeldun izan zen, 7-11 urte bitartekoen mailan.

**Gotzon Garate**
Deustuko Unibertsitateak omenaldia egin zion irakasle eta idazle elgoibartarrari, duela 30 urte Euskal Filologia Ikasketak abian jartzeko eginiko lanagatik.





**Nestor Perez**
Trinitateetako Jai Batzordeak estreinakoz antolatu zuen tanborrada iragartzeko kartel lehiaketa, Nestor Perez eibartarrak irabazi zuen.

**Jabi Aznal**
Jabi Aznal debarrak hartu zuen Unai Zulaikak lagatako lekua. Aurrerantzean bera izango Ezker Batuako zinegotzia.



HERRI ESKOLA

*Eguberri*
*eta Urte berri On!*



**Ekainak 3**
Herriko eragile desberdinen (kirola, kutura, antzerkia...) babesarekin, Elgoibarko Topagunea aurkeztu zuten. Helburua, Ibaetako Manifestu bezala aurkezturiko dokumentua argitaratzea.



**Ekainak 16**
Ostegunetako azokaren gaiak luze jo bazuen ere, azkenean, ostegunetako azoka Sigmara lekuz aldatzeko erabakia onartu eta Sigmara joateko lizentzia onartu zuten saltzaile gehienek.



**Ekainak 16**
Udalak Arau Subsidiarioen aldaketa proposatu zuen Lerun Txiki Morterika ingurunean industrigunea egin ahal izateko. Etorkizuneko industriguneak 71.128 m$^2$ izango ditu.



**Ekainak 28**
Bakearen Aldeko Emakumeen Ahotsak taldearekin bat egin zuten ideologia ezberdinetako emakumeek, EAJ, EA, Batasuna eta LABeko kideek, hain zuzen ere.



iRiONDO KiROLAK
MENDI eta KIROL GUZTIETARAKO EKIPAMENDUAK
Ondo pasau Gabonetan eta urte berri on!
**DENDA:** San Frantzisko, 37
**ERAKUSKETA:** San Frantzisko, 54

Txintxo
Inmobiliaria
Gabon jai zoriontsuak
San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 74 26 74

## [ PROTAGONISTAK ]



### Pako Juaristi

Elgoibarko Izarrak, Udal Euskaltegiak eta AEKk Udalaren laguntzaz, omenaldia egin zioten Pako Juaristiri ekainaren 8an, Musika Eskolako Auditorioan. Gau-eskola martxan jarri zenetik Elgoibarren, 50 urte pasa dira eta Pako Juaristi izan zen ekimen honen motorra.

### Joseba Igartua

Joseba Igartua Haundiko jokalariak, 25 urtez futbolean jokatu ostean, 34 urterekin futbola utzi zuen ekainean.





### Jaime Martinez

Arkulari elgoibartarrak Euskadiko Liga irabazi zuen basoko arku tiraketan. X. Euskadiko Txapelketako finala Arabako Larrabea basoan jokatu zen.

### Txomin Mujika

Elgoibartarra Bilboko Bilbao Musika Elkarteko zuzendari izendatu zuten. Elkarte honek, Musika Eskola, Musika Banda, Txistulari Banda eta Ikasfolk, hartzen ditu bere baitan.




Makina Erremintaren Institutua

IMH osatzen dugun lantaldearen partez, jai zoriontsuak eta urte berri on!

www.imh.es



Jon Peli Uriguenen argazkia: Karakate



**Uztailak 1**
Elgoibar BH Institutoko 4 ikaslek jaso zuten ohorezko matrikula ikasturte amaieran: Maialen Olazabal, Laura Vegas, Alazne Ruiz de Escudero eta Josune Zubikarai.



**Uztailak 1**
101 motorzalek hartu zuten parte Manu Alvarezen omenezko motokros proban. San Pedron motor zarata eta hauts artean, ikuskizun bikaina eskaini zuten.



**Uztailak 7**
Koadrilako burugogorrena zein den aukeratzeko txapelketa egin zuten Aterpe jatetxean bazkaltzen duen lagun talde batek. Juan vilarchao Gil izan zen irabazlea.



**Uztailak 10**
San Frantzisko kaleko etxebizitza batek su hartu zuen. Teilatupean dagoen tranpila txikian hasi zen sua. Eibarko suhiltzaileak etorri ziren sua itzaltzera eta zorionez, ez zen zaurituri k suertatu.

IMPRENTA
Arrillaga s.l.
Gabon zoriontsuak guztioi!
Tel.: 943 74 01 87 - Trenbide, 13-behea
arrillagasl@euskalnet.net - 20870 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)

NORFO s.l.
Ondo pasa Gabonak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

albe
LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
NONIUS GRABATUAK
GABON ZORIONTSUAK ELGOIBAR!
Sigma Industrialdea Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com



**Uztailak 22**
Lau emakume elgoibartar Mont Blanc mendian izan ziren. Lorea Vila, Marije Mendikute, Arrate Zubia eta Lourdes Zubiaurrek 40 urtetik gorako emakumeek aisialdiaz gozatzeko eskubidea dutela aldarrikatu zuten.



**Uztailak 25**
Aurtengo Santana jaietan Mendaroko Gaztetxea inauguratu zen. Hauxe izan da Santana jaietako nobedaderik aipagarriena

## [ PROTAGONISTAK ]



**Igor Txurruka**
11 urteko pilotari gaztea txapeldunorde gelditu zen Gipuzkoako Esku Pilota txapelketako benjamin mailan. Azkoitiko Anaitasuna Elkartean jokatzen du pilotari elgoibartarrak.

**Tania Kuchay**
Txernobiletik Elgoibarrera etorri zen 8 urteko neskatxa oporrak pasatzera. San Lorentzoko baserri batetatako familiarekin pasatu zuen uda.



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON !
ARKHIRU ARKITEKTOAK
Sigma-Elgoibar telf-fax: 943743145 arkhiru@hotmail.com

PREZISIO MUNDU BAT
MYL S.A.
Zorionak eta Urte Berri On!
Erramone poligonoa, 1-2-3 - 20850 **MENDARO**
Tel. 943 75 70 03 Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es http:www.myl.es



**Abuztuak 6**
San Pedro auzoan Santumotz Erromeria berreskuratu zuten, lehengo zaharrek egiten zuten moduan. Santumotz lautadan egin zuten erromeria, Aubixatik Hiru-Iturrira bidean.



**Abuztuak 23**
San Bartolome jaiak hasi ziren. Urtero bezala, astebete luzez ospatu ziren jaiak gure herrian eta denetarik izan genuen. Umore onez pasa genituen jaiak.



**Abuztuak 22**
Mupem enpresa zaharrean gaztetxe berria inauguratu zen. San Bartolomeetan jende dezente ibili zen bertan.

## [ PROTAGONISTAK ]



**Mikel Cornejo**
Mikel Cornejo izan zen San Bartolome jaietako kartel lehiaketaren irabazlea. Kolorez beteriko lana aurkeztu zuen lehiaketara, eta epaimahaiak hauxe aukeratu zuen.


- Kontabilitatea
- Asesoria fiskala
- Asesoria laborala
- Abokatuak

ASESORIA GOAR
San Bartolome,2Tel: 943 74 26 74 / Faxa: 943 74 21 29
asesoriagoar@euskalnet.net

NAVA S.L.
Inprimategia
ZORIONAK eta URTE BERRI ON!

ZUBACOR, S.L.
Ondo pasa Gabon jaiak!
Ibaitarte kalea, 11
Tel: 943 74 08 44 · Faxa: 943 74 26 66
zubacor@zubacor.com

Jaika
jatetxea
Urte berri on!
Pedro Muguruza, 27 behea - Tel.: 943 74 10 29

# MADIGAN´S IRISH PUB




- Gosariak
- Pintxoak
- Bokatak
- Entsaladak
- Plater konbinatuak

GIRORIK ONENA!



Ordutegia: Igandetan, 10etatik aurrera
Astelehenetik larunbatera 7etatik aurrera

Bernardo Ezenarro, 2 behea
Tel.: 943 53 15 57

BIOK DEKORAZIOA

www.biokdekorazioa.com

## Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

- Fatxadaren erreabilitazioa
- Apaintzeko pintura
- Pareta lisoak
- Parket flotatzailea
- Pintura orokorrean




Urte berri on!

Santa Klara, 26 behea ezkerra   Tel.: 943 74 15 52   606 43 11 19   606 43 11 20

Muruamendiaraz
ELGOIBAR
San Bartolome, 34-35 - Tel. 943 74 03 45

# Muruamendiaraz gozotegiak

Gabon jai gozo-gozoak
opa dizkizue herritar guztioi

Urte Berri On!








# ZEZEN-BIDE
## AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* **!**



**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era



**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

## [ OKINDEGIA ]

24 eta 31 domekak OKINDEGI GUZTIAK EGONGO DIRA IREKITA
6 larunbata IBARRENEA
7 igandea BOLINTXO

## [ FARMAZIAK ]

| | GUARDIA 24 ORDUZ |
|---|---|
| 22 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 23 | Fernandez *(* Goizez Bidasolo)* |
| **24** | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 25 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 26 | Zabaleta |
| 27 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 28 | Ibañez |
| 29 | Bidasolo |
| 30 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| **31** | Yudego |
| 1 | Yudego |
| 2 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 3 | Zabaleta |
| 4 | Yudego |
| 5 | Ibañez |
| **6** | Bidasolo |
| 7 | Bidasolo |
| **8** | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 9 | Fernandez |
| 10 | Yudego |
| 11 | Zabaleta |
| 12 | Etxeberria *(Errosario)* |

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

| **UDALA** | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

| **GARRAIOAK** | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

| **IKASTETXEAK** | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |


JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"
EDARI BANATZAILEA

eva
GURELESA
San Miguel 0,0%
INSALUS
GASEOSA PITUSA

Santa Ana, 41 943 74 10 41 • Mobila: 659 77 23 89

# [06] iraila



**Irailak 2**
San Antolin jaiak ospatu ziren. Urtero bezala, bertso afaria eta erromeria ez ziren falta izan. Aurtengo nobedadea gizon proba izan zen. 9 auzotar behorraren kontra. Gizona izan zen garaile.



**Irailak 4**
Parrokia aurreko obrak hasi ziren iraila hasieran. Lur guztia altxatu zuten eta antzinako aztarnaren batzuk aurkitu ote ziren zurrumurrua ireki zen herrian. Udaletxetik ezetz esan ziguten.



**Irailak 24**
Debarroko XXXII. Perretxiko Txapelketa jokatu zen. Partaidetza urria eta perretxiko gutxi izan ziren bertan. Inguruko mendietan ez zegoen perretxikorik garai hartan.



**Irailak 28**
Espainiar Armadako Militarrek gure herria bisitatu zuten. Euskal Herrian aritu ziren maniobrak egiten, eta gurera ere iritsi ziren. Batek baino gehiagok gerra zetorrela uste zuen.


NOVAK S.L.

MEKANIZATUAK

OLASO INDUSTRIALDEA 27
TEL. 943 74 85 73 FAXA: 943 74 39 01
novak@menovak.com
20870 ELGOIBAR

Zorionak eta Eguberri On!

## [ PROTAGONISTAK ]



### Jesus Ansola

Mausitxa baserriko Jesus Ansolak 1. saria jaso zuen Bergarako San Martin ferian. 32 gaztagileren artean, elgoibartarra izan zen onena. Jesus Ansolak bigarren urtez jarraian irabazi zuen Bergarako txapelketa.

### Xabier Gorostiza

53 urtez ileapaintzaile moduan lan egin ostean, Xabier Gorostiza jubilatu egin zen. 13 urte zituela hasi zen Xabier ileapaintzaile lanetan. Jende askok faltan botako du Xabier ileapaindegia.





### Carlos conde

Carlos Condek irabazi zuen Debabarrena Eskualdeko Ehiza Xehe Txapelketa. La Union Elkarteko ordezkariak 6 eper bota zituen Zanbranan jokatu zen txapelketan.

### Ruben Arozena

Ruben Arozena komikigile elgoibartarraren lanekin eginiko erakusketa inauguratu zen Kultur Etxean. Ruben Arozena iazko abenduaren 30ean hil zen, bihotzekoak jota.






Santa Klara, 16 behea
Tel.: 943 74 16 56 / 943 74 01 17
Mugikorra: 608 77 07 01



**Urriak 15**
1744. urtean itxitako arkua ireki zuten udaletxe azpian. 262 urte pasa ostean, Elgoibarko udaletxeak zazpi arku ditu.



**Urriak 16**
Istripu ikusgarria gertatu zen autopistako errotondan. Azkoititik zetorren kamioia frenorik gabe gelditu zen eta auto bat aurretik eraman ondoren, errekara erori zen. Ez zen zauriturik egon.




**Urriak 23**
Elgoibarko Izarrak www.elgoibarren.net atari digitala jarri zuen martxan. Elgoibarko orainkaria izatea da bere helburua, notiziak gertatu bezain pronto argitaratuko dira bertan.



**Urriak 27**
Ertzainak sartu ziren Kimetz Elkartean. Espainiako Auzitegi Gorenaren aginduz, Kimetz Elkartearen inbentarioa egitera etorri ziren.




IDARRAGA
KAFEAK

Eguneroko errealdiak

Gabon zoriontsuak!



Olaso industrialdea, 15 (55 E lokala)
Tel. 675 70 87 39

talleres
ZAILDU S.L.

MAKINARIA KONPONTZEN ESPEZIALISTAK
Mandrinadorean planoekin egindako lanak
Fresadora, Taladroa, Tornua eta Errektifikadorea

Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!

Santa Klara, 40 · Tel 943 74 07 60 · Faxa: 943 74 39 95




Etorri eta ezagutu IKASTOLA

EGUBERRION

elgoibar ikastola

☎ 943 744441
elgoibar@ikastola.net
www.elgoibarikastola.net



# Aubixa

Kultur Erakundeak
eta
Euskal Girotze Barnetegiak









*Gaixo daudenak azkar sendatu*
*eta arindu nekeak,*
*kanporatuak etxera itzuli*
*deuseztatu giltzapeak,*
*esperantzaren argi trintxa bat*
*piztu beza gizarteak.*
*Gabon goxoak opa dizkizu*
*izanaz elkar maiteak,*
*Euskal Girotze Barnetegiak*
*eta bertako jendeak*


Anje Duhalde
Abenduak 29, ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian
"Sorminetan"
diskoaren aurkezpena
Sarrerak aurrez salgai Kultur Etxean:
Goizez Euskara Sailean
Arratsaldez Gazte Informazio Bulegoan
Euskara Saila
Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza


Zorionak eta Urte Berri On
Felicidades y Próspero Año Nuevo
Joyeux Noël et Bonne Année
Frohe Weihnachten und ein Gutes Neues Jahr
Merry Christmas and Happy New Year
Buon Natale e Felice Anno Nuovo
2007
zorionak
INDUSTRY LANGUAGE SERVICES
Azkue Auzoa 1-P.K. 37 IMH · Tel. 943 74 40 40 · Faxa: 943 74 16 54 · e-mail: ils@ils.es · www.ils.es

## [ PROTAGONISTAK ]



### Luis Mazzantini

Luis Mazzantini toreatzaile elgoibartarra jaio zeneko 150. urteurrena bete zen urriaren 10ean. 1856an jaio zen Errosario kalean eta 1926ko apirilaren 25ean hil zen Madrilen.

### Jorge Gonzalez

Txirrindulari elgoibartarrak irabazi zuen San Pedroko igoeraren XV. edizioa. Azken bi urteetan bigarren postua errepikatu ostean, hirugarrenean irabaztea lortu zuen.





### Jose Antonio Arrillaga

Sanmigeldarra 2. postuan sailkatu zen Euskal Herriko Arraza Libreko Artzai Txakur Txapelketan. Sanmigeldarrak ezin izan zuen iazko garaipena errepikatu.

### Elur Arrieta

Perkusiojole gazteak Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin egin zuen debuta. Bost urtez Euskadiko Gazte Orkestran aritu ostean, nagusiekin kolaboratu zuen



ecenarro
Barruko erropak • Umeentzako erropak
San Frantzisko, 10 Tel: 943 74 26 19

NATURHOUSE
Dietetika eta nutrizioa
Urte berri on!
Ordutegia:
09:00 - 13:00
16:00 - 20:00
San Frantzisko, 26
Tel.: 943 741 078

Goizetik arrats... Beti euskaraz
GURE IRRATIA
Zure Irratia 106.6 - 90.5 FM
Sute baten gaitik, GURE IRRATIAREN estudioak osoki ondatuak izan dira 2006 abenduaren 5an huntan. GURE IRRATIAREN uhainak ez dira ixilik egonen...

GURE IRRATIAk jarraitu behar du zure sustenguarekin...
Euskadiko Kutxa: 3035 0059 8705 9005 2623 - gureirratiaelkartasuna@euskalirratiak.info - Tel.: 00 33 616 23 72 24

# [06] azaroa




**Azaroak 10**
Elgoibarko Ezker Batuaren egoitza berria inauguratu zen. Egun berean, bigarren errepublikari buruzko erakusketa jarri zuten ikusgai lokalean.



**Azaroak 17**
Santa Klarako Babes Ofizialeko 12 etxebizitzak zozketatu zirela jakin genuen. Honek haserre handia sortu zuen herritarren artean, oso jende gutxi enteratu baitzen. Jaurlaritzatik dena zuzen egin zela ziurtatu ziguten.



**Azaroak 18**
Elgoibarko Ezker Abertzaleak deituta, autodeterminazioaren aldeko ekitaldiak izan ziren Plaza Handian. 150 herritarrek "Nazioa" hitza osatu zuten.



**Azaroak 29**
Txarriduna Hotel berria inauguratu zen. 1949an ireki zituen ateak lehenengo aldiz hotelak. Hotel berriak 22 logela, kafetegia eta balioanitzeko gela bat ditu.


*Brontze eta Mekanizazio lanak*
BRONyMEC
*Arriaga auzoa*
*Tel. 943 742 807*
www.bronymec.com / comercial@bronymec.com

ETXEPE
MEKANIZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
LAN BEREZIAK
Ibaitarte Industrialdea, A2
Tel.943 74 12 97 - 74 06 64
Faxa 943 74 43 21
e-posta: etxepe@etxepe.com
Web orria: www.etxepe.com

MUEBLES
El Almacén
Tel./Faxa: 943 742 941
Urasandi, 2 - 1
Elgoibar




## [ PROTAGONISTAK ]



### Maritxu Alberdi
Azaroaren 1ean 100 urte bete zituen Maritxu Alberdik. Gabilondo armagintza enpresa ezagunekoa zen bere familia. Elgoibarren bizi ostean, Bilbora joan ziren. Argentina eta Frantzian ere bizi izan zen.

### Iban Zubiaurre
Iban Zubiaurre futbolari mendaroarra aurkeztu zuen Athletic-ek San Mamesen. 2014. urteko ekainaren 30era arteko konpromisoa sinatu zuen jokalari gazteak. Oraindik jokatu gabe jarraitzen du, Realarekin daukan auzia ez baita oraindik bukatu.





### Jon Loiola
Elgoibartarra apaiztu zuten azaroaren 25ean Donostiako Artzai Onaren katedralean. 31 urteko gazte hau, duela 6 urte hasi zen apaiz izateko ikasketak burutzen. Orain, Errenterian ari da apaiz moduan lanean.

### Ion Gurrutxaga
Musikari elgoibartarrak "Rory Gallagher, kemena eta leialtasuna" liburua argitaratu zuen. Musikari irlandarraren bizitza jaso du bertan.









**Abenduak 1**
Giza Eskubideen Enparantzako iturri berria inauguratu zuten. Udaletxe ingurua berritzeko proiektuan sartzen da obra hau.



**Abenduak 14**
Arima Beltza musika taldeak bere ibilbidearen amaiera publiko egin zuen. Bihar, abenduak 23 emango dute azken kontzertua Kultur Etxeko sotoan.

## [ PROTAGONISTAK ]



**Edu Arrillaga**
Argazkilari elgoibartarrak Dominikar Errepublikan ateratako argazkiekin liburu bat kaleratu zuen, eta Kultur Etxean argazki erakusketa inauguratu zuen. Jasone Osorok ere kolaboratu du liburuan.

**Fernando Bert**
Preso politiko elgoibartarra Madrilera eraman zuten abenduaren 14an. Hilabete inguru egon zen Fernando Bert entrega arriskuan. Bere egoera salatzeko gose greban egon zen urrian.





### I. URTEURRENA

2005eko abenduaren 29an, 73 urte zituela hil zen
*Ignacio Mugerza Izagirre*ren
oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean,
abenduak 30, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.





### ESKERTZA

2006ko abenduaren 18an hil zen
*Francisco Jose Urbieta Arrida*ren sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



GOKI ERREFORMAK S.L.

Honako Instalazioetan baimendutako enpresa:

ERAKUSKETA

Bainugelak
Ateak
Lurrak

OBRAK ETA PROIEKTUAK

Aroztegia
Fatxadak
Teilatuak

EGUZKI - ENERGIA

Klimatizazioa
Berokuntza
Gasa
Iturgintza
Erregai likidoak (Gasoleoa)



www.gokierreformak.net
goki@gokierreformak.com

Olaso pol., 15-68 Pb. ELGOIBAR • Tel. **943 74 28 80** / 943 74 42 23 / 943 74 46 40 - Faxa 943 74 45 87



Belaustegi Baserria JATETXEA




San Migel Gaina z/g • Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com

1 eguerdian zabalik
5 eta 6 zabalik




*Gabon zoriontsuak*
*eta urte berri on!*

SAAB

CHEVROLET

OPEL

**Giauto 902 345 225**

Otaola Etorbidea, 27 - EIBAR - TEL.: 943 70 08 41 • Karobi Industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 88 51 50 • **clientes@giauto.es**

[ GOMENDIOA ]

# Gaitz zeliakoa: glutena debekatua

Europako biztanleriaren %1ak gari, garagar eta zekalez eginiko elikagaien kontrako intolerantzia dauka. Garia, garagarra eta zekalea zereal edo laboreak dira eta horiekin osatzen dira mendebaldeko dietan oinarrizkoak diren elikagai batzuk; ogia, esate baterako. Baina osagai horiek ezin dituzte pertsona guztiek irentsi: Europan, adibidez, ehun lagunetik batek, gaitz zeliakoa jasaten du.

Gaitz honek garrantzi handiko osagai genetikoa du. Eritasuna umea txikia denean ager daiteke, bere dietan garia sartuz gero, baina heldutasunean ere ager daiteke. Kasu gehienetan sintomak arin-arinak dira, ez dira ongi antzematen konplikazio latzak etorri arte. Beraz, oso litekeena da gaitz zeliakoak urte luzetan asintomatiko iraun eta, bat-batean, birusen bidezko infekzio, ebakuntza kirurgiko, estres edo nekealdi larri, lesio fisikoak ondorioztatu dituen istripu edo antzeko beste baten eraginez agertzea. Sintomatologia ohikoenak beherako kronikoa, pisu galera eta argaltzea dira. Gaixotasuna berandu diagnostikatzen bada edo tratamendua egokia ez bazaio ematen, litekeena da epe luzera konplikazioak agertzea. Funtsezkoa da, horrenbestez, ahalik eta azkarren diagnostikatzea.

**Saihestu behar diren elikagaiak**

- Gari, garagar edo zekalez osaturiko ogi eta gainerako produktuak.
- Gari, garagar, zekale edo semola osagai daukaten pasta landuak.
- Entsaladak osatzeko onduak, haragi zukuak, saltsa eta zopak, gluten daukatenak.
- Krema edo bexamelez prestatutako barazkiak, enpanadak...

Glutenik gabeko elikagaien zerrenda luzea da baina oso prezio garestia eta, gainera, administrazioak ez du inolako laguntzarik ematen horrelakoak erosteko.


# [ OSASUN GIDA ]

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK
Kemen Belardenda
("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00
Sanatana Dharma Yoga Elkartea
Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK
Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00
Uzuri
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK
Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### HORTZ KLINIKAK
Irale
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

### FISIOTERAPIA
Ainhoa Fisioterapia
Eragozpen fisikoa egongo balitz etxez etxeko zerbitzua eskeintzen da.
Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)
Jausoro, 6 behea
Amalurra Fisioterapia
Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsaldez.
San Frantzisko, 58 behea (Maalan)
Tel.: 943 53 14 63
Olatz Fisioterapia
(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1 - Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### PODOLOGOAK
Oinberri
Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

EUSKAL KANTAGINTZA EGITARAUA

# Anje Duhaldek "Sorminetan" disko berria aurkeztuko du



Euskal kantagintza programaren baitan, Anje Duhaldek "Sorminetan", bere diska berria aurkeztuko du abenduaren 29an, Herriko Antzokian, gaueko 22:15etik aurrera. Lan berri honetan, 13 abesti aurki ditzakegu eta aldi honetan ere, abeslari lapurtarrak bere estilo propioari eutsiz, rock-blues-folk estiloetan oinarritutako kanta herrikoiak eskainiko dizkigu. Abesti ederrak dira, sendoak, helduak eta sentipenez beteak, soiltasunez jantziak. 1998. urtetik ez genuen Anje Duhalderen kantu propiorik jaso. 2000. urtean George Brassens-en kantuen bertsioez osatutako disko zotil eta ederraren ostean, oraingoan berriro bere mundura dator musikari karismatikoa. Diskoari aire herrikoi eta sentikor bezain baikor eta aurrerakoia eman dio. Betiko legez, maitasuna, herria, hizkuntza eta askatasuna dira bere doinuetan agertzen diren gaiak. Lan honetan, Xabier Amurizak moldatutako kantekin batera, John Hiatt, Mixel Labeguerie eta Jimmy Mc Carthyren abestien bertsioak entzun daitezke. Kontzertu honetarako sarrerak dagoeneko salgai daude, 5 eurotan, Euskara Sailak Kultur Etxean duen bulegoan goizez (7:30-14:30) eta Gazte Informazio Gunean, astearte, asteazken, ostegun eta ostiraletan arratsaldez (17:00-20:00).

# "Ama quiero ser lehendakari" Herriko Antzokian

Glu glu ekoizpen etxeak antolatuta, "Ama quiero ser lehendakari" antzerkia izango da urtarrilaren 19an Herriko Antzokian eta 22:15ean hasita. Antzezpen lan honetan, aktoreen zerrenda, Loli Astoreka, Ane Gabarain, Patxi Perez, Maribel Salas, Galder Perez eta Mari Cruz Melgosak osatzen dute. Euskal Herriko familia bat astero bezala, amaren inguruan elkartuko da. Beraien artean, ohi den bezala, liskarrean ibiliko dira eta amak beti moduan, animuak baretu beharko ditu. Hala ere, iragarkiak denen bizitzak hankaz gora jarriko ditu, izan ere, iragarki horretan lehendakari berri baten bila dabiltza eta guztiek lehendakari izateko euren gaitasunak erakutsiko dituzte.

Sarrerak 8,5 eurotan, dagoeneko salgai daude, goizez Kultura Sailean eta arratsaldetan, Gazte Informazio Bulegoan.



## Parrokiako Jaiotzak aurtengoan bi berrikuntza izango ditu

Elgoibarko Parrokiako jaiotzak eguazten honetan ireki ditu bere ateak.. Jaiotzak bi berrikuntza izango dirtu aurten: .batetik, hiru panpinez eraturiko bi talde, zeintzuk jaiotzaren aurretik paseatzen duten. Bestetik, burdinola batean burdina berotzen duen pertsonaiaren irudia.

## Uxue Alberdik "Errenteriako ipuin lehiaketan" lehen saria irabazi du

Pasa den zapatuan banatu ziren Errenteriako ipuin lehiaketako sariak. Euskarazko modalitatean, Uxue Alberdi kazetari eta idazle elgoibartarra izan zen irabazlea. Gazteleraz, bestalde, Carlos Frübeck Italian bizi den burgostarra izan zen saritua. Guztira, euskaraz 21 ipuin aurkeztu ziren lehiaketara eta beste 135 ipuin erdaraz, azken hauek, espainiar estatuko probintzia desberdinetatik eta atzerritik iritsiak.

ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XVI. XAKE TXAPELKETA

# Azer Mirzoev, Azerbaijaneko xakelariak jantzi du aurten txapela

Azer Mirzoev izan da, Elgoibarko XVI. Nazioarteko Xake Txapelketan, puntuaziorik altuena erdietsi duen xake jokalari hoberena eta honenbestez, aurtengo irabazlea. Puntu bateko aldearekin Oleg Korneev errusiarra sailkatu zen bigarren postuan, aurtengo edizioko faborito nagusia izan dena, bost aldiz torneo honetako garaile izan ondoren. Hirugarren, postuan berriz, Ivan Salgado 15 urteko xakelari galiziarra sailkatu zen. Hori dela-eta, gazte honi etorkizun handia aurreikusten zaio xakearen munduan. Bere garaian, duela urte batzuk, Vesselin Topalov izeneko bulgariarra Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketatik pasa zen eta gaur egun, munduko xakelaririk hoberenetarikoa dugu.



Xake Txapelketarekin jarraituz, aipatu, Tatiana Kononenko lehiaketako emakume ukrainiar bakarra, 9. postuan geratu zela. Sari banaketa, igandean egin zen Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan.

## Igeriketa taldea zehaztasuneko 2. jardunaldian aritu zen Oñatin



Elgoibarko igeriketa taldeko benjamin eta alebin mutilek ondorengo denborak burutu zituzten: 98an jaiotakoei dagokionez, 50m. bizkar-modalitatean eta benjaminetan Julen Royok (1.01.22); Daniel Legorburuk (1.02.02); Aitor Gurrutxagak (1.12.36). Bestalde, 96an jaiotakoei dagokionez, 50m. tximeleta eta alebin mailan, Aitor Santarenek (48.78) eta Mikel Royok (51.41). Azkenik, 100m. tximeletan, Mikel Royok (1.56:68).

## I. San Silvestre lasterketa Elgoibarren abenduaren 31n

Urgazi Triatloi taldeak kirol ekimen berria antolatu du, abenduak 31, domekarako: Elgoibarko I. San Silvestre eguneko lasterketa. Urteko azken eguna berezia izaten da, eta hori kontuan hartuta, kirola eginez eta lagun arteko giroan agurtu nahi dute Urgazi Triatloi taldekoek urte zaharra, eta berriari ongietorria eman. Lasterketak 5 kilometro izango ditu eta arratsaldeko 17:00etan hasiko da Plaza Handitik. Ibilbidea honakoa da: Plaza Handian hasi eta San Ana kaletik, Tren Geltokiaren kalera, Kiroldegitik IMH institutura jaitsi eta San Lorentzoko bide "zaharretik" Ibarreneako baserriraino joanez, ondoren, ezkerrera hartu eta San Lorentzoko bide "berritik" errepideko bidegurutzeraino. Albitxuriko aldapatik enpresagunera Melitongo zubira jaitsi, Artetxe kalea Madalako parkea eta San Frantzisko kalea, San Bartolome kalea eta Plaza Handian bukatzeko. Urgazi Triatloi taldearen helburua, ahalik eta elgoibartar gehien biltzea da. Lasterketa herritar guztiei zuzendua dago; profesional nahiz amateurrei. Ez da irabazlerik ezta galtzailerik egongo, herrian kirol jardueren eskaintza zabaltzea da helburua.

## [ EMAITZAK ]

**FUTBOLA**

Haundi 2 - Cultural de Durango 0
Beti Ona 1 - Elgoibar 0 (erreg.1.mail.)
Elgoibar 2 - Aloña mendi 3 ( jub.)
Ikasberri 0 - Elgoibar 9 (kad.)
Vasconia C.D. 0 - Elgoibar 3 (Inf.txiki)
Elgoibar 0 - Urola 3 (O. infant.)
Elgoibar 1- Mutrikuo 5 (neskak)

**ARETO FUTBOLA**

Lagun Onak 4 - Kenci 4 (Euskal liga)
Kenci 5 - U.Z. COOP. Urretxu 0 (2.mail. gipuzk.)
Egintza 2 - Elgoibar 6 (jub.)
Zarautz 6 - Relojes Mondaine 4 (jub.)

**ESKU PILOTA**

Lagunak 22 - Oiarpe 12 (jub. 1mail.)
Lagunak 22 - Mundarro 20 (kad. 2.mail.)

## [ AGENDA ]

**ARETO FUTBOLA** Kiroldegian
Zapatua, 23
17:00 Kenci – Apel Getxo

## Haur jaioberrientzat igeriketa ikastaroak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazten du urtarrilaren 13an emango zaiela hasiera jaioberrien igeriketa ikastaroei. Saioak larunbatetan izango dira, 10:30etik aurrera, Izaskun Zubikarairen zuzendaritzapean. Izena emateko epea irekita dago eta interesatuak Olaizaga kiroldegira hurbildu daitezke.

## Elgoibartarrak Gipuzkoako pilota finalean

Atxotegi eta Loiolak osaturiko pilotari bikoteak, nagusien 2. mailan, Gipuzkoako Txapelketako final aurreko partida irabazi zuen pasa den aste bukaeran. Jardunaldia Seguran jokatu zen eta Azpeitiko Larrañaga eta Agirrezabala garaitu zituzten, 22-14ko emaitzarekin. Finala, berriz, barixakuan izango da Seguran, iluntzeko 20:30etik aurrera. Partida garrantzitsua izango da, bikote elgoibartarrarentzat, izan ere, datorren urtean, Gipuzkoako Txapelketan lehen mailan jokatzeko txartela baitago jokoan. Aurkariak, Azpeitiko Ilunpe 2 taldekoak izango dituzte.

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Pisua salgai Altzolan. 2 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Kanpoko aldean lursail txiki bat. Sartzeko moduan. Merkea.
  **619812448**
- Pisua salgai San Frantzisko kalean. 100m2. Egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. **607741678**

**ETXEA SALGAI MENDARON**
Mendarozabal Auzoan.
3 logela, sukaldea,
komuna eta egongela.
Dena kanpoaldera.
Bizitzera sartzeko prest.
943 03 38 44
686 62 21 92

- Etxea salgai Erretxindin. 3 logela, egongela, jangela, komuna, trastelekua, 2 igogailu. Berritua.
  **680707639**
- Pisua salgai Verin-en (Galizia). Castilla Etorbidea, San Roke taberna ondoan. 3 logela, saloia, sukaldea, 2 bainugela, ganbara. Prezio onean. Jantzita. Igogailua eta berogailua. **666701846 (Maria)**

### ALOKAIRUA

- Bi lagunentzako etxea hartuko nuke alokairuan. 400 edo 450 euro ordaintzeko prest.
  **943530631**
- Logela bat alokatzen dut.
  **635206436**
- Etxebizitza alokatzen da Urasandin. **943 742727**
- Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. **697897899**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Garaje itxia alokatzen da Mendaron, Garagartzan. Berria. 65 euro hilean.
  **653709955**
- Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean.
  **943744398/943740070**
- Garaje itxia alokatzen dut Madalan. **636097290**
- Garaje itxia alokatzen dut Urasandin. Bi solairukoa.
  **943740434**
- Garajea saldu edo alokatzen dut Urasandi eta Madala artean dagoen Anayak eraikuntzan. Itxia, 2 pisukoa, bakoitzak 24m$^2$
  **620431480**

## [ AUTOAK ]

- Opel Astra Caravan 2.0 DTI 16v. autoa salgai. Egoera onean. Beti garajean.
  **943743489/667015155**
- Ford K autoa salgai.
  **629759316**
- Rover 414 autoa salgai. SS-AX.
  **943 740251**
- Fiat furgoneta salgai. SS-BC.
  **639101757**
- Trialera motorra salgai. Gas Gas markakoa. **639101757**
- Citroen C3 autoa salgai. Diesel, 70 zaldi, 2004koa. 7.400 euro.
  **660027976**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro . Autoak 8 euro . Eta bestelakoak 5 euro . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea etxeko lanak egin, umeak eta nagusiak zaindu, kamarera edo beste edozertan lan egiteko prest. **610396965**
- Emakumea etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest. **943530803 Jackeline (gauez)**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Astean 3 egun.
  **666701846 (Maria)**
- Emakumea lanerako prest.
  **610632782**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu, tabernan lan egiteko prest. **699576107**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut etxeetan. Maila guztiak. Proficency 18 urtetik gorakoentzat. **606733850**
- Neska nagusiak zaintzeko prest. Interna moduan.
  **663572424 (Xiomara)**
- Esperientziadun estetizista lanerako prest. **696794107**
- Neska garbiketa lanak egin, edo nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. **617056828**
- Emakumea lanerako prest.
  **646832693**
- Emakumea lanerako prest.
  **666001575**
- Emakumea lanerako prest.
  **636362251**
- Emakumea lanerako prest.
  **646235195**
- Emakumea lanerako prest, externa edo interna moduan.
  **686578228**
- 60 urteko emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **943741872 (17:00etatik aurrera)**
- 1. eta 2. Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut.
  **943531054**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Gauez edo egunez. Esperientzia daukat.
  **943744433**
- Emakumea garbiketa lanak egin, etxeko lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko prest.
  **686617930/943530130**

### ESKAINTZA

- Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. **647416313**
- Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. **607824892**
- Esperientziadun kamareroa behar da. Asteburuetan jai.
  **636015707**
- Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko.
  **637753755**
- Asteburuetan tabernan lan egiteko kamareroak behar dira.
  **670250429**
- Neska euskalduna behar da tabernarako. **670654921**
- Debako taberna baterako kamareroa behar da.
  **629720293**
- Gabi jatetxerako kamareroa behar da, barra eta jantokirako.
  **943 741230**
- Pertsona euskalduna behar da tabernarako. Astean zehar eta asteburuak txandaka.
  **943742897**
- 35 urte bitarteko emakumea behar da goizez jantzidendan lan egiteko. Esperientziaduna.
  **676899604 (goizez)**
- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.
  **943744582 (20:00-21:00)**

GOIMEK
GRUPO DANOBAT
LANPOSTU ESKAINTZA:
REKTIFIKADORE edo ARTEZTARIA
ESPERIENTZIADUNA
Interesa duzuenok, bidali CVa Debako 5. Posta Kutxatilara urtarrilaren 25a baino lehenago, RW postua adieraziz.

## ABISUAK

- Karitasek mantak eta josteko makinak hartuko lituzke.
  **943741509/741257**
- Abenduaren 2an kamara digitala galdu nuen (Sony). Ordainsaria emango dut.
  **943741270**
- Aterki handi bat aurkitu dut, funda eta guzti.
  **943741353**
- Hamster batentzako kaiola oparitzen dut. **626162005**
- Ermuaranbide kaletik San Frantzisko (King-Kong) bitartean umearen txaleko marroi eta ileduna galdu genuen.
  **667739843**
- Ikastola inguruan berokia galdu nuen. Beltza, forro grisa, txanoa dauka. **943742524**


disArt
diseinu estudioa
-DEKORAZIO AHOLKULARITZA
-GREMIOEN KOORDINAZIOA
-ALTZARIAK
-INTERESIK GABEKO FINANTZIAKETA
Pedro Muguruza Etorbidea 5 Elgoibar
Tel/fax: 943 743245
disart@dlsartestudio.net
www.disartestudio.net


BOLINTXO OKINTEGIA
Gabon zoriontsuak!
San Frantzisko, 17
Tel.: 943 74 33 78


Euskadi 2004
Elgoibar B.H. Institutua
GABON-JAI
ZORIONTSUAK
ETA 2007
URTE BERRI ON

Upaiz Zaharra, 6
Elgoibar

on@oninformatika.com
943 74 18 46

On
informatika

Salmenta | Konponketa | Zerbitzu Teknikoa | Aholkularitza | Web Diseinua | Sareak ...

Sartu gure web orrian, edota etor zaitez gu ezagutzera!!

www.oninformatika.com

ESTUDIOS
ARRILLAGA



*Proiektu eta erreformak*
*Gremioen zuzendaritza*
*Altzarigintza osoa*

**Arragueta 12. EIBAR**
Tel. 943 20 06 98

**Errosario 15. ELGOIBAR**
Tel. 943 74 40 19



PILAR IKASTETXEA
Elgoibar

GABON ZORIONTSUAK ETA
URTE BERRI ON





# [ZORIONAK]



▸ Azkenian! Zorionak **Oier** zure 2. urtebetetzean. Etxekoen eta bereziki, Galderren partez patxo potolo pilo bat.



▸ Zorionak **Iker**! Abenduaren 28an 2 urtetxo! Ondo pasa! Oier eta etxeko guztien partez muxutxuak!!



▸ Gure mutila haunditu egin da! Hilaren 30ean 6 urte egingo ditu! Zorionak **Aitor**! Mila muxu gurasoen partez.



▸ Zorionak **Eider**, gaur 8 urte egin dituzulako. Ahizpa Goizeder, guraso eta familiakoen partez.



▸ Zorionak **Olatz** abenduaren 25ean 9 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



▸ Zorionak **Mireya** atzo 23 urte egin zenituelako. Oier eta zure lehengusina Maialenen partez.



▸ Zorionak **Maialen** atzo 8urte egin zenituelako. 8 muxu eta ondo pasa! Familiako guztien partez.



▸ Zorionak **aitatxo** urtarrilaren 7an zure eguna delako. Eider eta Goizederren partez muxu handi bat.



▸ Zorionak **Oinatz eta Markel** abenduaren 24an urteak egingo dituzuelako. Familiako guztien partez.



▸ Zorionak **Olatz eta Oier** abenduaren 26an 7 urte egingo dituzuelako. Aita, anaia, amama eta aitxitxaren partez.



▸ Zorionak **Mª Jesus** abenduaren 20an urteak egin zenituelako. Etxekoen, bereziki, senar Julian, Garazi eta Iruneren partez.



▸ Zorionak **Amaia** abenduaren 23an 6 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.

## [ 22 BARIXAKUA ]

**20:00 MUSIKA ESKOLAKO GABONETAKO KONTZERTUA**
San Bartolome parrokian.
Antolatzailea: Inazio Bereziartua Musika Eskola.

**14:00- 16:00 WEB ORRIAK SORTZEKO IKASTAROA** (hilaren 24ra arte.
KZ Gunean.

## [ 23 ZAPATUA ]

**23:00 ARIMA BELTZAREN KONTZERTUA**
Kultur Etxeko Sotoan.

## [ 24 DOMEKIA ]

**11:00 OLENTZEROREKIN KALEJIRA**
Madalako parketik.
Antolatzailea: Atxutxiamaika Aisialdi Taldea.

**13:00 "BEHIN BATEAN... GABONAK" IDAZ LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.

**12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN GABONETAKO KONTZERTUA**
Herriko Antzokian.
Egitaraua: "Euskal Herriko kantak"(J. Franco); "En un mercado Persa"(A. Ketelbey); "A Christmas dance"(M. Carros); "Katiuska"(P. Sorozabal); "Tom Jones in concert" (T. Jones) eta "Ator ator"(T. Aragües).

**18:00 UDAL MUSIKA BANDAREN GABON EGUNEKO KALEJIRA**

**18:00 PARROKIAKO ABESBATZA**
Kalejira herriko kaleetan zehar.

## [ 26 MARTITZENA ]

**NEGULEKUAK**
(Jolasak, eskulanak, abestiak... HHko eta LHko 1 eta 2ko haurrentzat, hilaren 29ra arte eta urtarrilaren 2tik 5era).
Herri Eskolan.
Antolatzailea: Atxutxiamaika.
Informazio gehiago: 943 74 16 26.

## [ 27 EGUAZTENA ]

**"PINera IRTEERA"**
(DBHko gazteentzat).
Antolatzailea: Gaz-T. Informazio gehiago: 943 74 16 26.

**16:30 eta 18:30 "MARI MOTOTS"**
Pirritx eta Porrotx pailazoak.
Herriko Antzokian.

## [ 28 EGUENA ]

**22:30 "GABONETAKO BERTSO JAIALDIA"**
Herriko Antzokian.
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

## [ 29 BARIXAKUA ]

**22:15 ANJE DUHALDEREN KONTZERTUA**
Herriko Antzokian.

## [ 30 ZAPATUA ]

**08:30 GABON ZAHARRETAKO FERIA**
Plaza Handian: barazki eta fruitu erakusketa, lehiaketa eta salmenta.
Elizpean: Gazta eta eztia. Leku Eder parkean: baserriko produktuak. Aita Agirre Plazan: Hileroko ganadu feria eta baserrirako lanabesak.
Bolatokiko parkean eta Nafarroa Plazan: abereen erakusketa.

**10:30 TRIKITILARIEKIN KALEJIRA**

**11:00 XXV. GAZTA LEHIAKETAREN HASIERA** (lehiaketakirauen bitartean, bertsolariak: Mañukorta, Ziarda, eta Meabebasterretxea).
Udaletxeko Areto Nagusian.
Antolatzailea: Goiko-Errota elkartea.

**12:00- 14:00 ELGOIBARKO AHOTSAK EMAKUME TALDEAREN MANIFESTUA** (eta sinaduren bilketa).
Plaza Handian.

**13:30 FRUTA, BARAZKI ETA GAZTA LEHIAKETAREN SARI BANAKETA**
Udaletxeko Areto Nagusian.

**16:30 "BALZOLA ANAIAK" TRIKITILARIEKIN KALEJIRA**

**18:00 PLAZARA DANTZARA ERROMERIA**
(Plaza Handian, euria eginez gero, Kiroldegian).

**19:00 BURDUNTZIAN ERRETAKO TXAHAL PINTXOAK** eskainiko ditu Elgoibarko Ikastolak.
Nafarroa Plazan.

## [ 31 DOMEKIA ]

**17:00 "ELGOIBARKO I SAN SILVESTRE EGUNEKO LASTERKETA**
PLaza Handian.
Antolatzailea: Urgazi Triatloi taldea.

**SINOPSIAK**

**«Infiltrados»**



## [ 2 MARTITZENA ]

17:30 **JAMUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK**
San Lazaro egoitzan.

## [ 5 BARIXAKUA ]

17:30- 19:30 **JAIOTZA BIZIDUNA**
Plaza Handian.

18:00 **ERREGEEN KABALGATA**
Elgoibarko kaleetan zehar.

20:00 **SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAREN FINALERDIAK**
Ikastolako frontoian.
Antolatzailea: Lagunak taldea.

## [ 6 ZAPATUA ]

10:15 **ELGOIBARKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA ETA SAN LAZARO EGOITZAN KONTZERTUA**

12:00 **KRISTAU IKASBIDEKOEN MEZA**
San Bartolome parrokian, Meltxor Gaspar eta Baltasarrekin.

12:30 **MUSIKA BANDAREN ERREGE EGUNEKO KONTZERTUA**
Egitaraua: "Inquietudes culturales" (R. Domenech);"La Italiana en Argel" (G. Rossini); "La Mision" (E. Morricone), "Katiuska"(P. Sorozabal) eta "Homenaje a Mexico" (D. Moreno ) Herriko Antzokian.

## [ 8 ASTELEHENA ]

09:00 -11:00 eta 18:00-20:00 **"IT KZGUNEA: INTERNETEKO OINARRIZKO IKASTAROA DOHAINIK** (16 urtetik gorakoentzat, urtarrilaren 19ra arte).
KZ Gunean.

## [ 9 MARTITZENA ]

12:30 **LXIV NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSAREN AURKEZPENA**
Udaletxeko Pleno Aretoan.

15:00-17:00 eta 18:00-20:00 **ALTZARIAK BERRITZEKO IKASTAROA**
Usetxen. Izena emateko:
943 74 08 01 ( maiatzera arte).

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR**
HERRIKO ANTZOKIAN
**«Infiltrados»**
22, barixakua: 22:15
23, zapatua: 19:30-22:15
**«Nomadaktx» (Z.K.)**
26, martitzena: 21:30
27, eguastena: 21:30
**«Cruzando el puente: los sonidos de Estambul» (Z.K)**
4, eguena (urtarrila): 21:30
**«Un buen año»**
6, zapatua : 19:30-22:15
7, domeka : 19:30-22:15
8, astelehena : 21:30
**«Eragon»**
12, barixakua : 22:15

**EIBAR,** UNZAGA
**«El Perfume»**
22, barixakua: 19:30-22:15
23, zapatua: 19:30-22:15
24, domekia: 19:30-22:15
25, astelehena: 19:30-22:15
**«Pequeño pero maton»**
23, zapatua: 17:00
24, domekia: 17:00
25, astelehena: 17:00

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

**Zuzendaria: Martin Scorsese.**
**Antzezleak: Leonardo DiCaprio (Billy Costigan), Matt Damon (Colin Sullivan)..**
Massachussetseko Poliziak, Frank Costello, mafiako buruarekin amaitzeko, Billy izeneko polizia hasi berria, mafian infiltratzen du. Aldi berean, Colin izeneko prestigiodun beste polizia batek kasu bera kertzen jardungo du, baina, aldi berean, Castelloentzat lan egingo du. Polizia eta gansterrak beaien artean sator bat dagoela ohartzen direnean, Billy eta Colinen bizitzak arriskuan jarriko dira eta nork bere burua salbatu beharko du.

## «Cruzando el puente: los sonidos de Estambul» (Z.K.)




**Zuzendaria: Fatih Akin**
**Antzezleak: Alexander Hacke, Baba Zula.**
Alexander Hacke, "Einstürzende Neubauten"alemaniar banda abangoardistako kideak, 20 urtez Estambul eta bertoko musika ezagutu zituen. Bere xedea, Estambulgo musika aniztasuna bere egitea zen; ondoren, musika hau mendebaldeko munduan aditzera emana izan zedin. Soinu elektroniko modernoenetatik hasi eta rock zein hip- hop soinuetatik igaroz, arabiar musika klasikoraino. Fatih Akin zuzendaria filmatze lanetan aritu zen, Alexanderri bere bidaian lagunduz.




**1960**. urte inguruko erretratu zahar hau **Luis Gurrutxagak** laga digu. Olentzeroren kalejiran aterata-ko argazkia da hau. Ongarrik antolatzen zuen ordu hartan Olentzeroren kalejira. Francoren garaian ere, Ongarriren eskutik atera zen kalejira hau lehenengo aldiz Elgoibarren. Argazkia bera ere, Ongarriren lokal aurrean aterata dago, Madalan zegoen lokala, Txarriduna parean. Argazkian jende asko agertzen da. Denak ezin izan ditugu ezagutu, baina hauek dira argazkian agertzen diren batzuk. Gainonetzekoek, seguru euren burua ezagutuko dutela.

Atzean, ezkerretik eskumara: **Jose Luis Elizburu, Luis Gurrutxaga, Jesus Bilbao, Andoni Alberdi "Patxillo" ( ), Sebastian Etxabe, Fernando Azpiazu, Jose Mari Betelu, Patxi Agarre.**

Bigarren ilaran: **Patxi Betelu, Gelatxo (soinujolea), Mª Anjeles Kortabitarte, Arantza Etxaniz ( ), Josefina Astigarraga, Arantza Arrieta, Rosario Andonegi, Ana Mª Mata, Arantza Zubiaurre, Pilar Larrañaga, Ignacio Mugerza, Gloria Mugerza, Pepita Astigarraga ( ), Gerardo "Katalo" ( ), Juanito Irureta.**

Makurtuta: **Jose Antonio Urbieta "Kiriki", Begoña Etxaniz, Begoña Gabilondo, Jose Antonio Iriondo, Pedro Osoro, Iñaki Cendoya "Azkoitxi", Jose Otaegi, Modesto Larrañaga, Joseba Argarate eta Iñaki Gorostiza.**

---



**ESKERTZA**

2006ko abenduaren 18an hil zen
***Agustina Iriondo Azpiazu***ren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



EAJ
PNV

Elgoibarko EAJ-PNVk
jai zoriontsuak opa dizkizue
elgoibartar guztioi.



# BERTSO SAIOA

ABENDUAK 28

EGUENA

22:30

HERRIKO ANTZOKIA

## ELGOIBAR

Amets Arzallus
Unai Iturriaga
Arkaitz Estiballes
Fredi Paya
Jon Martin

**Aurkezlea:**
Uxue Alberdi

Elgoibarko Udala

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Foru Aldundia

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa:943 53 18 05

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Proiektu eta erreformak

**Bigara Erreformak**
San Frantzisko, 11-5
☎ 696 95 27 95/696 95 27 96
**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52/606 43 11 19-20
**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com

# ELGOIBARKO UDALAK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE HERRITAR GUZTIOI







## Gabon Zaharretako Feria



**ABENDUAK 30**

"URTE ZAHARRA ONDO BUKATU ETA BERRIA HOBETO HASI"